

Kontratu aurreko informazioa BBVA TRADEREN DIFERENTZIENGATIKO KONTRATU FINANTZARIOEI (CFDak) BURUZKO ZERBITZU

Agiri hau ez da kontratua eta, beraz, ez du inolako betebeharrak edo eskubiderik sortzen. Dokumentuaren helburu bakarra BBVA TRADERen (aurrerantzean, "Zerbitzua") Diferentziengatikoko kontratu finantzarioei ("CFDak" eta indibidualki "CFD") buruzko zerbitzu operatiboa zer den eta nola funtzionatzen duen ulertzen laguntzea da.

Arretaz irakurri behar duzu zerbitzua kontratatu aurretik, eta kontratatzea erabakitzen baduzu, www.bbvatrader.com helbidean egin behar duzu.

BBVAk inbertitzaileari aholkatzen dio zerbitzu hau ez dela egokia neurrizko arriskuak hartzeko politikak eta espekulatiboak ez diren profilak dituzten inbertitzaileentzat, eta inbertitzaileak bere kasua den edo ez baloratu beharko du. CFDak tresna konplexuak dira, eta dirua azkar galtzeko arrisku handiari lotuta daude, palanka-efektuagatik. Indarrean dagoen araudiaren arabera bbva.es/personas/productos/bolsa/cfd-trading.html helbidean erakutsiko da CFDein negoziatzean dirua galtzen duten txikizkako inbertitzaileen ehunekoa. Zerbitzua kontratatu aurretik, kontuan hartu beharko zenuke CFDak nola funtzionatzen duten ulertzen duzun, eta zure dirua galtzeko arrisku handia har dezakezun.

Dokumentu hau irakurri ostean ez badituzu bere baldintzak ulertzen, ez izan zalantzarik eta kontsultatu guri eskura jartzen dizkizugun bideak erabiliz (horien laburpena dokumentu honen amaieran aurkituko duzu) edozein azalpen edo informazio gehigarri emateko, baina ez kontratatu zerbitzu hau bere edukia ulertu duzula ziurtatu gabe.

Inbertsio-zerbitzuak ematen dituen erakundea

BBVAri buruzko datuak	Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. ("BBVA"), Bizkaiako Merkataritza-erregistroan inskribatuta dago, bere IFK A-48265169 da, eta egoitza soziala Bilbon dauka, San Nikolas plazako 4. zenbakian.
Erakunde ikuskatzaileak	Espainiako Bankuaren Entitateen Erregistroan gaude 0182 zenbakiarekin eta gaituta gaude inbertsio-zerbitzuak emateko, Espainiako Bankuak (Alcalá kalea 48, Madril - www.bde.es) eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (Edison kalea 4, Madril - www.cnmv.es) gainbegiraturik.

Nola komunikatuko gara

Gure arteko komunikazioa eta informazioaren bidalketa oro har dokumentu honen hizkuntza berean egingo dira, BBVA TRADER kontratuan definitutako bitartekoen bidez.

Interes-gatazkak

BBVAn gardenak gara gure interes-gatazken gainean eta, dugun politikaren arabera,

- identifikatu egiten ditugu eta
- prebentzio- eta kudeaketa-neurriekin eta horiek konpontzeko jarduketa-prozedurekin tratatzen ditugu.

Azken buruan, gatazka jakin bat kudeatzeko hartutako neurriak nahikoak ez badira, arrazoizko ziurtasunez, arriskuak aurreikusiko direla bermatzeko, gatazkaren nondik norakoa edo jatorria jakinaraziko dizugu, ematen edo eskaintzen zaizun zerbitzuari buruz egokien deritzozun erabakia har dezazun.

Eskura duzu politika honi buruzko xehetasuna hurrengo helbidean: <https://www.bbva.es/general/informes-legales.html#legislacion-mifid>

BBVAK bere egikaritze-politikaren laburpen bat entregatzen dizu (BBVA Trader zerbitzua, edo inbertsio-zerbitzuekin erlacionatutako beste edozein produktu/zerbitzu kontratatzean) eta bertan, besteak beste, hurrengoari buruzko informazioa jasotzen da:

- egikaritze-zentroen hautaketa prozesua, erabilitako egikaritze-estrategiak,
- eskuratutako egikaritzearen kalitatea aztertze erabilitako prozedurak eta prozesuak,
- BBVAK bere bezeroentzat emaitza posible onenak lortu direla kontrolatzeko eta egiaztatze modua,
- sor daitezkeen gastuen gutzizkoa,
- politikan jasotako zentro bakoitzaren kalitateari buruzko datu eguneratuak.

Egikaritze hoberako politikari buruzko informazioa

Eskura duzu egikaritze-politikaren laburpen eguneratua gure webean: <https://www.bbva.es/general/informes-legales.html#legislacion-mifid>

Zer da zerbitzu hau?

Zerbitzuaren deskribapena

CFDen gainean berezko kontua jarriz aginduak egikaritzea

Zerbitzu honen bidez, BBVAK hurrengo eskaintzen dizu:

- CFD jakinen gainean berezko kontua jarriz aginduak egikaritzeko zerbitzua, BBVAK bezero baten agindua egikaritzen duen bakoitzean, merkatuko sortzailearen eta bezeroaren artean jartzen da. Horregatik, BBVAK CFD bat ixten du bezero batekin, eta aldi berean, beste CFD bat banku arteko merkatuan bere arriskua estaltzeko BBVAK erabiltzen duen erakundearekin (merkatuko sortzailea).
- Zerbitzu honek funtsean hurrengoaren bidez funtzionatzen du: horretarako gaitutako kanalak erabiliz CFD jakinen gaineko aginduak sartzea ahalbidetzen duen kontratazio-tresna bat. Inbertitzaileak bideratutako agindu bat onartzen bada, BBVAK aldi berean bi CFD egikaritzeko ditu baldintza beretan (bat inbertitzailearekin eta bestea merkatuko sortzailearekin); horrela, BBVAK zerbitzua eman dezake merkatuaren mugimenduengatik arriskueta esposizioa izan gabe. Zerbitzuaren kontraprestazio gisa, inbertitzaileak BBVAri ordaindu behar dizkio alde aurretik inbertitzaileari jakinarazi zaizkion eragiketaren komisio, ordainsari edo gastuak, eta komisio esplizituen edo produktuaren prezioan barne hartutako kostuen forma har dezakete.

Zerbitzua emateko erabiltzen diren tresnak

Une oro aurkitu eta kontsultatu ahal izango dituzun CFDak bbva.es/personas/productos/bolsa/cfd-trading.html helbidean, besteak beste, merkatu nagusietako akzioen gaineko CFDA, indize orokor eta sektorial nagusien gaineko CFDA, lehengai eta metal preziatuen gaineko CFDA, dibisa-pare nagusien gaineko CFDA eta interes-tasei buruzko gerokoien gaineko CFDA.

Azpiko aktiboaren prezioaren arriskua. Inbertitzaileak bere gain hartzen du azpiko aktiboek kontrako bilakaera izateko arriskua, eta are egindako inbertsioaren (jarritako marjina) baino galera handiagoa izan dezake, inbertitzaileak BBVA TRADER-en bere CFDren kontuan jarrita dituen funtsen guztizkoa izateraino hel daitezkeelarik.

Balorazioaren arriskua. CFDak ez direnez produktu estandarizatuak, inbertitzaileak kontuan hartu beharko ditu CFD mota bakoitzaren balorazioan zerikusia duten berezitasunak.

Palanka-efektuaren arriskua. CFDak palanka-efektua duten produktuak dira. Ondorioz, inbertsioaren etekina -egindako egiazko inbertsioaren gainean kalkulatuta- biderkatu daiteke (onerako zein txarrerako) eta, horrekin batera, baita arriskua edota balizko galeraren edo irabaziaren azkartasuna ere. Ondorioz, posizioak etengabe kontrolatu behar dira, aurreikuspenen aurkako joera gailentzen bada galerak hasieran jarritako kapitalarenak baino handiagoak izan daitezkeelako.

Kreditu arriskua, CFDren kontrako alderdia (kasu honetan BBVA) izango den finantza-entitateak bere ordainketei aurre ez egiteko aukeragatik.

Likidezia arriskua. Estandarizatu gabeko produktuak izatean, inbertitzaileak kontuan izan beharko ditu merkatu bakoitzaren ezaugarriak eta bere eragiketentzat kontrako alderdirik ez aurkitzearen arriskua. BBVA ez dago behartuta inbertitzailearengandik jasotako aginduak egikaritzera eta, gainera, hark jakitun izan behar du badirela ezohiko inguruabar batzuk BBVAk CFD jakin batzuetan prezioak eskaintzea edo posizioak ixtea galarazten dutenak.

Zerbitzua emateko erabiltzen diren tresnei lotutako arriskuak

Kanbio-tasaren arriskua. Inbertitzailearen oinarriko dibisa ez den dibisa batean izendatutako CFD batean egindako inbertsioak inbertitzailearentzat duen balioa: adibidez, euroa), edo inbertitzailearen oinarriko dibisa ez den bestelako batean izendatutako azpiko balioa duen batean balioari kanbio-tasetan izaten diren aldaketek eragingo die, eta galerak sor dakizkioke inbertitzaileari, azpikoaren prezioan aldaketarik egon ez arren.

Posizioak egun bat baino gehiago mantentzearen arriskua. Inbertitzaileak jakin behar du ordu jakin batzuetan (zerbitzu operatiboaren funtzionamendu ordutegia amaitzen denetik eta zerbitzu operatiboaren funtzionamendu ordutegia edo azpiko aktiboaren negoziazio ordutegia, dagokionaren arabera, irekitzen den arte) ezinezkoa dela posizioak CFDTan irekitzea edo ixtea, eta, beraz, posizio bat egun batean baino gehiagoan mantentzeak marjina bat izan dezakela berekin. Horrek esan nahi du inbertitzaileak egin beharko diola aurre posizio bat bere itxiera egunera arte irekita izatearen finantzazio-kostuari. Kontuan izan behar da finantzaketa kostu horrek aplikatu beharreko Repo kostua barne har dezakeela.

Posizioak ixteko arriskua: inbertitzaileak bere betebeharrei aurre egiteko nahikoa funts ez duen kasu zehatz batzuetan, CFDTan irekitako posizioa automatikoki itxiko da, eta itxiera horrek ondare galera ekar dezake.

Zerbitzua emateko erabiltzen diren finantza-tresnei atxikitako arriskuei buruzko datu gehiago kontsultatzeko, mesedez, joan hurrengora, www.bbvatrader.com | **Mi Bróker | Información Relevante** bertan arriskuak xehe-xehe zehazten dira, eta baita zerbitzua emateko erabiltzen diren finantza-tresna desberdinen funtzionamendua ere.

Zeintzuk dira urteko kostuak?

Zerbitzuaren guztizko kostuak

Zerbitzua kontratatzeak ez dauka kosturik, nahiz eta kostuak sor daitezkeen egindako eragiketen arabera, zeinak kontsulta ditzakezun hurrengo estekan, bbva.es/personas/productos/bolsa/cfd-trading.html, tarifen xehetasunarekin, eta gainera eskuragarri duzu (kontsulta eta deskarga) BBVA Trader CFDak tarifen dokumentua.

Jarraian, eta azalpen moduan, CFDekin egindako operatiboari dagozkion kostuak xehatzen dira azpiko mota desberdinetarako kostuen adibideekin, 10.000 euro nozionalako inbertsio baten gaineko kasua aurkeztuz (horiek aldera ditzazun) adibide bakoitzean:

CFD kontratuaren adibidea	Kontratu kopurua	Eragiketaren prezioa	Zenbateko nozionala	Kontratu eta eragiketa mota bakoitzerako kostuen adibidea													
				BBVAren kostuak		Eragiketaren kostua		Finantzazioaren (overnight) kostua egun batengatik (3)				Kostuak guztira					
				Komisioa / Spread(*)	Gutxienekoa	Kostu implizitua (1)	Komisioa (2)	Diferentziala	Erreferentziako interes-tasa 1 (3)	Erreferentziako interes-tasa 2 (3)	Finantzazio kostua guztira (4)	Euroak	nozionalaren gaineko %				
Erosketa eragiketa baten datuak																	
Ekintzak	10.000	10,00 €	10.000 €	% 0,06	6 €	1,00 €	6 €	% 2,50	+	% -0,484	=	% 2,02	0,55 €	7,55 €	% 0,08		
Indizea (España 35)	1	10.000	10.000 €	5	-	2,50 €	-	% 2,50	+	% -0,484	=	% 2,02	0,55 €	3,05 €	% 0,03		
FX EUR/USD	10.000	1,2157	10.000 €	0,0001	-	0,41 €	-	% 1,00	-	% -0,484	+	% 0,150	=	% 1,63	0,45 €	0,86 €	% 0,01
Salmenta eragiketa baten datuak																	
Ekintzak	1.000	10,00 €	10.000 €	% 0,06	6 €	1,00 €	6 €	% 2,50	-	% -0,484	=	% 2,98	0,82 €	7,82 €	% 0,08		
Indizea (España 35)	1	10.000	10.000 €	5	-	2,50 €	-	% 2,50	-	% -0,484	=	% 2,98	0,82 €	3,32 €	% 0,03		
FX EUR/USD	10.000	1,2157	10.000 €	0,0001	-	0,41 €	-	% 1,00	+	% -0,484	-	% 0,150	=	% 0,37	0,10 €	0,51 €	% 0,01

Oharrak:

(*) Akzioen CFDen kasuan %-ko komisio bat aplikatuko da zenbateko nozionalaren gainean gutxienekoa adierazita. Gainerako azpikoetarako, jasandako kostua aplikatutako spreada izango da. Spreada eskari- eta eskaintza-prezioaren (prezio-urkila) arteko diferentziaren baliokidea da, eskari- eta eskaintza-prezioaren artean. Kostu implizituari dagokionez, hori spread horren erdia izango da, kontratu kopuruarekin biderkatuta. Adierazitako spreadak indize edo dibisaren prezioaren unitateak ordezkatzeko ditu.

(1) Akzioen gaineko CFDei kasuan, kostu implizitua kostu teorikoa da (BBVAk aplikatzen ez dizuna), akzioen zuzeneko salerosketaren antzekoa, merkatuan existitzen diren erosketa- (eskaria) eta salmenta-aginduen (eskaintza) prezioaren arteko diferentziagatikoa. Hau da, eskaintza-preziara erosten bada eta berehala eskari-preziara saltzen bada, prezioak nahitaez desberdinak izango dira (hau da informatzeko jasotzen den kostu implizitua). Adibidean, 9,998 (eskaria) eta 10,000 (eskaintza) balizko prezio-urkila hartzen da eta $9,998 - 10,000 \times 1000 / 2 = 1 \text{ €}$ izango da kostua. Gainerako CFDei (akzioenak ez direnak) azpikoaren prezioaren puntuetan adierazita dago kostua, eta inbertitzaileak jasandako kostu bat da, zeina implizitua den produktuaren eskaintza- eta eskari-prezioaren arteko diferentzia.

(2) Komisioa inbertitzailearen kontuan likidatuko da (akzioen gaineko CFDei soilik aplikatuko zaie).

(3) Azpiko aktiboaren negozio-ordutegiaren, edo edozein kasutan, CFDei zerbitzu operatiboaren funtzionamendu-ordutegiaren amaieratik harago irekita mantentzen diren posizioei aplikatuko zaizkie. Adibidez, % -0,484ko interes-tasaren (erreferentziako 1. interes-tasa) eta % 0,15eko (erreferentziako 2. interes-tasa) kasua. Erreferentziako 1. interes-tasa eta 2. interes-tasa (merkatuko interes-tasak direnez) produktu bakoitzaren deskribapenean argitaratuta egongo dira. Kostu hori egunerokoa da eta posizio irekita mantentzen den egunetako.

Produktu bakoitzaren kostuen xehetasuna produktuaren deskribapenean ikus daiteke BBVA Trader CFDak plataforman, eta horrela, inbertitzaileak alde aurretik ezagutu ditzake operatiboari lotutako kostuak (izan implizituak edo komisioen bidezkoak). Nolanahi ere, agindu espezifiko bat tramitatzean, aginduaren kostu zehatzei buruz jakinaraziko zaizu, bere baldintzetara doituta.

Horrez gainera, baliteke bezeroarentzat beste kostu batzuk sortzea, dokumentu honetan jasotzen ez diren eta BBVAren bidez ordaintzen ez diren zergak ordaintzea barne.

Bestelako informazio garrantzitsua

Pizgarriak	BBVAK ez du pizgarririk jasotzen zerbitzu hau emateagatik.
Zer behar dugu zerbitzua emateko	Zerbitzua erabili ahal izateko, inbertitzaileak BBVA TRADER zerbitzua kontratatu behar, eta horrekin batera "BBVA Trader eskudiru-kontua" eskudiru-kontua irekita mantendu behar du, bertan egingo baitira zordunketak eta ordainketak, eta zerbitzu multikanala kontratatuta izan behar du.
Telefono bidezko jakinarazpenen grabaketari buruzko ohartarazpena	Telefono bidezko kontratazioen kasuan, elkarrizketa grabatu egingo da eta bezeroak haren kopia bat eskatu ahal izango du grabatu zenetik 5 urteko epean zehar (edo 7 autoritate eskudunak epe luzeagoa eskatuko balu). Era berean eskuragarri izango du kontratazioa gauzatzen saiatzen garen baina edozein arrazoi dela eta posible ez den elkarrizketen grabaketen kopia. BBVAK beretzat gordeko du aipatutako grabaketak eskura jartzeagatik komisio bat kobratzeko eskubidea.
Aldizkako informazioa	<p>Bankuak unean-unean emango dizu igorri dizkiguzun aginduen arabera CFDen kontratazioari buruzko funtsezko informazioaren berri.</p> <p>Honako informazio hau jakinaraziko dizugu hiru hilean behin:</p> <p>a) aldiaren amaieran diren tresna guztiei buruzko datuak.</p> <p>b) eskudirutan edo kupoietan dibidendua ordaintzea bezalako finantza-eragiketetan parte hartzeagatik zure alde sortutako edozein mozkinen zenbatekoa, eta onura horren sortzapen-oinarria.</p> <p>c) tresnen merkatuko balorazioa, edo beste balorazio bat, merkatukoa ez badago eskuragarri.</p> <p>Urtero kostuen guztizkoari buruzko informazioa emango dizugu, zerbitzuarena zein tresnena, eta baita azken horien errentagarritasunarena ere. Gainera, zerga-aitorpenerako datuak emango dizkizugu.</p> <p>Halaber, abisatu egingo dizugu palanka-efektudun finantza-tresna bakoitzaren edo pasibo gehigarriak dakartzaten eragiketen hasierako balioa % 10 galtzen duenean eta ondoren % 10eko multiploetan, aplikatu beharreko araudiak ezarritakoaren arabera.</p> <p>Aurrekoaz gain, zure posizioei buruzko informazioa atzitu ahal izango duzu noiznahi www.bbvatrader.es helbideko eremu pribatuan, BBVA Trader CFDak atzitud.</p>
Uko egitea	Dokumentu honetan erlazionatutako zerbitzuaren xede-kontratua urrutitik egiten bada, ezingo diozu horri uko egin zerbitzu finantzarioen urrutiko salerosketaren araudi erregulatzailean aurreikusitakoaren arabera, izan ere, eskubide hori erabil dezakezun epearen igarotzean, inbertsioak egin daitezke finantza-tresnen gainean.

Lege-oharra

Dokumentu hau BBVAk landu du, Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak baimendu eta ikuskatutako erakundea dena, BBVA Trader-eko CFDen gaineko zerbitzu operatiboaren izaera, ezaugarriak eta funtzionamenduaren gaineko informazioa emateko, zure egoera zehaztuz egokituta egon gabe.

Dokumentu hau jaso eta irakurtzean hurrengoak jakin behar duzu:

1. Dokumentu hau ez da BBVAren eskaintza edo gonbidapen bat, onargarria edo atxikigarria, inbertsioak egin edo ezeztatzeko.
2. Ezin da a) kopiatu, fotokopiatu edo bikoiztu edozein modu, forma edo bitarteko erabiliz dokumentu honetako ezein zati; b) ezin da birbanatu, c) dibulgatu, aipatu, jakinarazi edo d) entregatu hori debekatuta, mugatuta edo baimen-baldintzetara, erregistrora edo bestelako komunikaziora lotuta dagoen herrialdeetako edo lurraldeetako legeriari edo jurisdikziora lotutako beste pertsona edo erakunde bati.

Urrutiko kanal batetik (gakoarekin) sinatzen baduzu, sinaduraren data eta ordua dokumentu honen amaieran erakutsiko den hatz-markan agertuko da, kontuan hartu gabe adierazitako dokumentuaren sortze-data.

Bestelako informazio garrantzitsua

Produktu hau erosteko bezero tipologiari dagokionez murrizketarik egon ez arren (txikizkako bezeroa, profesionalak eta kontrako alderdi hautagarria), hau ez da egokitat jotzen txikizkako bezeroentzat normalean. Nolanahi ere, bere konplexutasuna dela eta, soilik **egokitatzat jotzen da ezagutza finantzarioa eta/edo izaera honetako finantza-produktu deribatuetan esperientzia duten txikizkako inbertitzaileentzat**, zeinak, gainera, inbertitutako zenbatekoaren gainetik egon daitezkeen **galerak jasateko prest** egon behar duten.

Adierazten dizugu ez dugula egiaztatuko produktu honetarako definitutako merkatu objektiboarekin bateragarria zaren edo ez.

Harremanetarako



bbvatrader.com



Oficinas BBVA



900 102 801



Info_trader@bbva.com

Webgunea, bbva.es/personas/productos/bolsa/cfd-trading.html, atzi dezakezu eta bertan hurrengo aurkituko duzu: diferentziengatiko kontratuei (CFDak) buruzko informazioa, marjin eta kostuen informazioa, tresna horien buruzko informazio didaktikoa eta eskuragarri dagoen operatiboa, eta zerbitzu hau kontratatu aurretik eta/edo CFDrekin eragiketak egin hasi aurretik zure interesekoak izan daitezkeen beste eduki batzuk.